

Martxoan 2024

INFO

Ikastolak



ALDEBAKARREKO % 0,5eko IGOERA IKASTOLETAKO LANGILEENTZAT

Lan Hitzarmeneko mahaiko bileran, aurrekordioan adostutako edukiak ekartzeko eskatu dugu, Lan Hitzarmena sinatzeko bidean urratsak emanez.

☐ www.lab.eus
666774912 Araba
674137908 Bizkaia
666779156 Gipuzkoa

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Ikastoletako Lan Hitzarmeneko Mahaiak bilera egin zuen martxoaren 7an. Ikastolen Elkarteak (partaidek) eta EIBk aldebakarrez erabaki dute Administrazioak bere langileei egin dien soldata igoera bera aplikatzea ikastoletako langileei: % 0,5, alegia. Igoera martxoko nominan aplikatuko da, 2023ko urtarriletik atzeraeraginkortasunez.

Bestalde, urtero bezala, hurrengo asteetan hasiera emango diogu 2024ko eszedente eta beharren prozedurari. LABen aldetik, prozesu horren garrantzia aldarrikatu eta aurreko urteetan egin den bezala, zorrotasunez egingo dela bermatuko dugula adierazi genuen mahaietan.

Amaitzeko, Lan Hitzarmen berria sinatzeko urratsak emateko eskaera egin dugu. Horretarako, urtarrilaren 16an sinatu genuen aurrekoakordioan dauden edukiak mahai-gainera ekarriz eta han jasotakoa gauzatu.

Lanean eta borrokan jarraituko dugu aurrekordioan sinatutakoa finkatu eta Lan Hitzarmen berria sinatu arte!

